
Donostia Campusak “Parkea Musik Fest” jaialdiaren beste edizio bat hartuko du ostegun honetan, Euskadiko Parke Teknologikoko enpresetako profesionalen partaidetza duten hiru talderen presentziarekin

Ekitaldia librea da pertsona guztientzat, eta Donostia campuseko eraikin nagusiaren ondoan egingo da (Mikeletegi pasealekua, 53), 17:00etan hasita.

Musika programak “Alerta Petrov”, “Lurrin” eta “OM Lila” taldeen parte hartzea barne hartzen du. Talde horietako kide dira, hurrenez hurren, Uno Minda, Deneb Medical eta Cidetec enpresetako profesionalak.

Euskadiko Parke Teknologikoko Donostia Campuseko Eraikin Nagusiak “Parkea Musik Fest” ekimenaren beste edizio bat hartuko du datorren ostegunean, irailak 18. Duela zortzi urte sortu zen, toki horretan bertan, “Parke” enpresetan lan egiten duten pertsonen talentuari eta sormenari bidea zabaltzeko eta ikusgaitasuna emateko eta esparru profesionaleko oztopoak gainditzeko topagunea sortzeko xedez.

Musika 17:00etan hasiko da, Euskadiko Parke Teknologikoaren Donostia Campusaren bihotzean, eta bertako hiru talde izango dira protagonistak: “Alerta Petrov”, “ukitu emozionalak dituzten hard rock interprete” gisa definitzen den banda; “Lurrin”, pop eraginak dituen indie-rock proiektua; eta “OM Lila”, nazioartean ibilbidea duen DJ eta house musikaren ekoizlea.

Musika estilotik haratago, hiru taldeek funtsezko elementu bat dute. Taldea osatzen duten kideetako bat, gutxienez, Euskadiko Parke Teknologikoko enpresa bateko langilea da. Hala, **“Alerta Petrov”** taldeko **Rubén Saez Uno Minda (Light & Systems Technical Center – Rinder)** enpresako I+Gko zuzendaria da, eta 20 urte inguru daramatza bertan lanean. Enpresa osagai eta sistema automotrizatze berritzaileen fabrikatzaile eta hornitzaile globala da, eta bi gorpilen sektorerako argiztapen ekipoen diseinua ere egiten du. “Lurrin” taldeko **Noé Ortega** Deneb Medicaletako ingeniari-tza saileko zuzendaria da, eta 9 urte baino gehiago daramatza lanean soluzio mediko disruptiboen garapenean espezializatutako enpresa emergente horretan. Eta, azkenik, **Rebeca Azpiri**, “OM Lila” DJa, ikertzaile gisa ari da ioi-litioko baterietan, energia biltegitratzeari, nanomedikuntzari eta gainazalen ingeniartzari buruzko ikerketa aplikatuko zentro erreferente den **Cidetec**-en.

Musika emanaldiez gain, ekitaldira bertaratzeko direnek topaketa guneaz gozatzeko aukera izango dute. Hurbiltzen diren lehen 150 pertsonentzat doako kontsumizioak egongo dira, eta hainbat zozketatan parte hartzeko aukera ere izango dute. Zehazki, Realaren partidetarako VIP sarrerak, spa eta brunch esperientziak, BBK Live eta Azkena Rock jaialdietarako pase bikoitzak eta Aquariumerako edo

Donostiako Fantasiatzko Zinema jaialdirako sarrerak zozkatuko dira.

Gogorarazi behar da, gaur egun BeParke Klubaren jardueren parte den “Parkea Musik Fest” Donostia Campusean sortu zela, hain zuzen ere, “Parkerako erronka bat” proiektuaren ondorioz. Berrikuntza irekiko ekimen horren helburua Euskadiko Parke Teknologikoa eta bertako profesionalen bizi kalitatea hobetzen lagunduko zuten ideiak eta proiektuak jasotzea zen. Ordutik, jaialdia funtsezko hitzordu gisa finkatu da kulturaren eta musikaren bidez ‘Parke’ ekosistema indartzeko eta aberasteko.

Datorren osteguneko edizioarekin, dagoeneko 14 “Parkea Musik Fest” beteko dira Euskadiko Parke Teknologikoaren hainbat campusetan, hala nola Donostian, Zamudion, Gasteizen eta Leioan. Ekimen horri esker, ‘Parke’ enpresetako langile askok beren talentua ezagutarazi ahal izan dute, eta beste askok beren lankideen ezaugarri artistikoak deskubritu dituzte, lan giroa aisialdi, ongizate eta denbora libreko gune bihurtuz.

PARKEA MUSIK FEST 2025

Eguna: 2025eko irailak 18, osteguna

Ordua: 17:00etan.

Tokia: Donostia Campuseko Eraikin Nagusia
Euskadiko Parke Teknologikoa
Mikeletegi pasealekua, 53.
20009 Donostia, Gipuzkoa

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa

Prentsa Saila

prentsa@parke.eus

T 94 403 95 00